



2020KO URRIA

MOTORRA

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

MIKEL BEREZIARTUA 'REKADISTA' YOUTUBERRA

**300.000 jarraitzaile
dituen zarauztarraren
sekretuak**

GUKA
ZERBITZUAK

AUTOESKOLA

✓ Baimenak:

- AM
- A1
- A2
- A
- B
- B+E
- C
- C+E
- D



- CAP kurtsoak
- ADR kurtsoak



Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera



943-81 26 66

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea

urolaonline@hotmail.com

UROLA

PSIKOTEKNIKOA

- Gidabaimenak
- Armak
- Nautika
- Txakur arriskutsuak
- Kirol ziurtagiriak



943-81 35 06

Hartzubia, 31 behea

aurolapsikoteknikoa@outlook.com



AZPEITIA · www.urolaautoeskola.com

4-5
Motoan egiteko ibilbidea

6-7
Lambretten bildumagilea

8
Arreta errepidean

10
Egin lo lasai autokarabanan

12
Depositua beteta

14
Joera berriak

16-18
Gertutik: Borja Huerto

22-26
Gertutik: Mikel Bereziartua
youtuberra

28
Bizikletak autoan: 3 aukera

30-37
Motor gida

38
Asteburu pasa

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria:

Onintza Lete Arrieta

Kudeatzailea:

Leire Larrañaga

Publizitatea:

UKT komertzial taldea

Testuak:

UKT kazetari taldea

Diseinua:

Ane Azkue

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus






EZAGUTU UROLA KOSTA MOTOZ

Urola Kostako herri eta txokoak ezagutuz bidaiatzera gonbidatu nahi zaitugu. Ezagunak egingo zaizkizun inguruetatik barrena joango gara, bi ordu eta erdiko bidaia batean. Zumaian hasi eta Orion amaitu, tartean ondorengo geldialdiak eginez, bailarako txokoak berriro deskubritzeko helburuarekin. Urola Kosta barruko herrietako mendiak igaroko ditugu, eta kostako hondartzez gozatu

Etorri nahi?



Nuarbeko urtegia. Lehen geldialdia. Nuarbeko Ibai-Eder urtegiaren inguruan bide ederra dugu pasiera egin eta hankak luzatzeko.

Errezil. Gipuzkoako balkoirara iritsi gara. Mokadutxo egiten dugun bitartean, ikuspegiak gozatzeko aukera dugu.



Santa Engrazia. Aizarnako mendi tontorrera (507metro) iristean, Santa Engraziako ermita edo basilizarekin aurkituko gara. Euskal Herriko basilizetan zaharrenetakoa da, eta, beraz, historia luzea du.

Zarautz. Kostaldera iritsi gara, eta aurrean dugu Zarautz. Gipuzkoako kostaldeko hondartza luzeena da, ur-kirolak egin, bainua hartu edota hondarretan etzanda egoteko aproposa.



Aia. Oriora iritsi aurretik, Aian egingo dugu azken geldialdia. Pagoeta mendien magalean dagoen herri hau, Gipuzkoako handienetakoa da azaleraz.

UROLA KOSTA



Ibilbidea bideoan ikusteko, bisitatu
www.urolakosta.hitza.eus webgunea

LAMBRETTAK PASIO

Juanjo Agirre (Azpeitia) motorzalea da, baina pasioa Lambretta markako motorrengatik sentitzen du. Italiako ikur diren motor horien bost modelo ditu Agirrek; 125 LD, Patinete, LI 150, SX200 eta SX200 Orbar

Garajea gordetzen dituen bost Lambrettak berritzen eta atontzen igarotzen du denbora Juanjo Agirre azpeitiarrak. Hori du zaletasun kutunena. Bost motor horietatik zaharrena 125 LD modelo da **(1)**; 1952. urtekoa. Berezitasun nabarmen bat du motoak: Eibarko irudia du, bertan egindakoa delako. Ondorengoa, 1955ekoa da; Patinete modelo da **(2)**. Agirrek erosi zuen lehen Lambretta da, eta itxura berezia du.

Hirugarren zaharrena LI 150 modelo da **(3)**. 1963. urteko motorrak garai hartako aurrerapen teknologikoak ditu: lau abiadura eta potentzia handiagoa. SX200 modelo da **(4)**, berriz, 1982. urtekoa da, eta Scooter Linea karrozeriaren itxura du. Azkenik, Lambretta berriena SX200 Orbar modelo da **(5)**. 1987an Amurrión (Araba) erositako motorrak diseinu eta forma modernoak ditu. ■



Erregaiak
Butanoa
Zerbitzu pertsonalizatua
Deskontuak Avia txartelarekin
Deskontuak Azpeitia txartelarekin

AVIA

Erregaiak
24 orduz irekita
Deskontuak Avia txartelarekin
Deskontuak Herrixen txartelarekin

Ezkuzta pasealekua, z/g
AZPEITIA

Ibai-Ondo, 14
AZKOITIA

SAIHESTU DESKUIDUAK AUTOAN HIRU PAUSO ERRAZEKIN

Distrazioengatik hiltzen da jende gehien zirkulazio istripuetan. Espainiako Trafiko Zuzendaritza Nagusiak erregistratutako datuen arabera, iaz 359 bizitza galdu ziren errepideetan, eta kasuen %28an distrazioak izan ziren arrazoi nagusia. Horregatik, autoa martxan jarri aurretik hiru pauso hauek jarraitzea gomendatzen dizugu

1. Sakelako telefonoa bihurtu da gidarien deskuiduen iturri nagusia. Agintariek gomendatzen dute *auto modua* aktibatuta izatea, hala duten mugikorretan behintzat. Zureak ez badu aukera hori, gogoratu autoa geldituta eta larrialdiren bat izanez gero bakarrik erabil dezakezula sakelako telefonoa. Gidatzean mugikorrean ibiltzeak begirada errepidetik kentzera behartzen zaitu: adibidez, mezua bidaltzen badugu arreta galduko dugu 600 metroz.

2. Nabigatzailearen kasuan, komenigarriena zera da, gidatzen hasi aurretik programatzea ibilbidea. Izan ere, oso arriskutsua da gidatzen ari zaren bitartean manipulatzeko.

Nabigatzailean helbide bat sartzeak, errepidean zer gertatzen ari den ez jakitea eragingo du 466 metrotan zehar.

3. Azkenik, irratia edo multimedia sistema erabiltzeak 200 metro inguru *itsuan* gidatzera behartzen zaitu.

Bestelakoak

Distrazio iturri nagusiak horiek diren arren, badira saihestu beharreko beste zenbait kontu: otordu handiak; alkohola-ren eta beste droga batzuen kontsumoa; kontraindikazioak dituzten botikak; edo behar bezala deskantsatu gabe gidatzea. ■



Autoen konponketak egiten ditugu, baita mantentze lanak ere. Bereziki, zentralitak konpontzen eta berriz programatzen espezializatuta gaude.

Oso gogor lan egiten dugu zerbitzu onena eskaini ahal izateko. Autoa zaintzen lagunduko dizugu olio, freno, gurpil... denetik moldatzen, lehen mailako produktuak erabiliz beti.



MEKANIKA



DIREKZIOA



ELEKTRIZITATEA



BALAZTAK



ZENTRALITAK



AIRE EGOKITUA



GURPILAK



ENGANTXEAK

Atxubiaga, 3 · AZPEITIA · 943-14 23 54
urraki@urraki.eus · www.urraki.eus ·

NON APARKATU DEZAKET AUTOKARABANA?

**Asteburu pasa egiteko edo oporrak
igarotzeko autokarabana hartuta
bidaiatzea gustuko baduzu,
garrantzitsua da jakitea non aparkatu
dezakezun, ez baduzu ezusteko
arazorik eduki nahi**

Autokarabanan bidaiatzeak askatasuna ematen du; mendi aldera joz gero, naturarekin harremanetan jartzen zara, eta, aldiz, kostaldera joanez gero, itsasertzean esnatzeko aukera ematen dizu. Hala ere, jakin behar da non eta zer egoeratan aparkatu daitekeen arau-hausterik egin gabe.

Berez, ibilgailuentzako edozein aparkalekutan utzi daiteke autokarabana. Beti ere, noski, zirkulazio arauak bete behar dira. Hala, ibilgailuaren barruan jan edo lo egin daiteke, barruko erabilera pribatua baita. Aitzitik, kanpalditzat hartuko dira ondorengoak: aulkiak ateratzen badira; toldoak edo ibilgailuaren perimetrotik kanpora irteten diren beste elementu batzuk zabaltzen badira; likido edo jariakinen bat isurtzen bada; eta inguruan bizi diren pertsonen atsedena kalte-tu dezakeen zarata gogaikarriren bat egiten bada.

Orokorrean, ondo aparkatuz gero, ez zenuke arazorik egon behar, baina kontuan hartu behar da udal bakoitzak bere ordenantza eta legedia dituela, eta, beraz, gomendagarria da joaten zaren udalerriko araudia irakurtzea edota ezagutzea. ■



AIZPURU autoak



Sistema elektronikoa
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Mekanika
Txapa eta pintura
Aire girotua
Azterketa
IAT aurretik ibilgailua aztertzeko zerbitzua
...



ADI ERREGAI GUTXI BADUZU AUTOAN...

Autoa erregairik gabe gelditzeak 3.000 euroko isuna ekar lezake, jarraian azalduko ditugun akatsak eginez gero

3.000 eurotik gorako isuna jar diezagukete gasolina edo erregairik gabe geratzen bagara autoan. Erregairik gabe geratzea Espainiako Trafikoko Araudi Orokorrean arau hauste gisa agertzen ez den arren, egoera horrek akats larriak egitera eraman zaitzake.

Jakin beharreko lehenbiziko gauza honakoa da: erregai depositoa erreserban geldituz gero, 60 eta 120 kilometro bitartean egiteko aukera edukiko dugu, auto klasearen arabera. Gasolindegia batera iristeko nahikoa, beraz.

Hala ere, ez badugu garaiz hornitzeko aukerarik eduki, eta erreserba agortu ondoren autoak gelditzeko arriskua duela ikusten badugu, azkar ibili behar dugu autoa leku seguru batean uzteko. Toki segurua izateaz gain, inguruan egon daitezkeen oinezkoak edo erabiltzaileak asaldatu edota arriskuan jartzen ez dituen lekua aukeratu behar dugu. Osterantzean, gidatzeko delitu arduragabe gisa hartu daiteke, eta kasu horretan, 200 euroko isuna jaso dezakegu. Gainera, autoa gelditzeko maniobra modu egokian, legearen barruan, egingo dugu. Izan ere, mugimendu arriskutsurik eginez gero, 200 euroko isuna jaso dezakegu aurreko arrazoi beragatik.

Behin autoa leku seguru batean utzita, hurrengo pausoa istripu baten aurrean egongo bagina bezala jokatzeari buruz. Hau da, txalekoa jantziko dugu, triangeluak jarriko ditugu, eta abar.

Aurreko jarraibide denak hartuta ere, isunik handienetakoa jasotzeko aukera gaude oraindik. Ibilgailua utzi eta inguruko gasolindegia batera joatea erabakitzen badugu, erositako gasolina onartutako edukiontzietan eraman beharko dugu beti. Erregaia botila arruntean, pote batean edo poltsan eramaten harrapatzen bagaituzte, 3.000 euroko isuna jar dezakete erregaia eramateko homologatutako edukiontzirik ez eramateagatik. Honelako edukiontzia gasolindegia guztietan aurki ditzakegu, eta beraz, kostatzen den apurra ordaintzeak merezi du. ■

talleres

AiA



Multimarkak



Klimatizazioa



Elektrizitatea



Balaztak



Injekzioa



Mantenimendua



Mekanika orokorra



Pneumatikoak



IAT zerbitzua: IAT aurrekoa, autoa eraman eta jaso...



Mekanika azkarra



Diagnosia



Ihes kanalizazioak



Autoen garbiketa





PATINETE ELEKTRIKOAK, GORANZKO JOERAN

Hirian mugitzeko ibilgailu nagusia bihurtzear da patinete elektrikoa. Erosotasuna eta aurrezpen ekonomikoa dira arrazoi nagusiak, baina badira bete beharreko arauak ere ibilgailu horiek gidatzeko orduan

Patinete eta bizikleta elektrikoen eskaera %144 igo da Espainian 2020ko bigarren lauhilekoan, lehenbiziko lauhilekoarekin alderatuta. Patineteak, batik bat, asko areagotu dira Urola Kostan. Herri barruan alde batetik bestera ibiltzeko ibilgailu ohikoa bihurtu dira.

Zergatik izan dute, ordea, horrelako igoera? Lehenengo azalpena izan daiteke garraio publikoaren ordezkoko bitartekoak bilatzea, egungo osasun krisia ikusita. Bigarrena, berriz, aurrezte da. Izan ere, honelako ibilgailuekin ez da beharrezkoa auto pribatua hartzea, eta beraz, aurrezki ekonomikoa handiagoa da.

Modan daude, beraz, honelako patineteak, baina zirkulazio arauak errespetatu behar dira. Izan ere, gure eta oinezkoen segurtasuna lehenetsi behar dugu. Modu horretan bakarrik lortuko baita ez izatea istripurik edota ezbeharrik errepideetan eta espaloietan.

Gakoak ikusgaitasuna eta seinaleztapena dira. Abiatu aurretik, ziurtatu ibilgailuak aurreko argia duela, eta gomendatzen da arropa islatzailea eramatea gauzez edo ikusgarritasun txikiko baldintzetan gidatzen badugu. Martxan hasita, ahal den guztietan bidegorritik joan beharko da eta, bestela, errepidetik, baina espaloitik ahalik gertuen. Azkenik, egin beharreko mugimendu guztiak aldeztu aurretik seinaleztatu behar dira, talka egiteko arriskua murrizteko. ■



Aiertza Autoak

Behar duzun
konfiantzazko tailerra!!

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com



Zerbitzu azkarra
Mekanika eta mantenimendua
Elektrizitatea - Elektronika
Txapa eta pintura
IAT aurrekoa
Ordezko ibilgailua
Kotxeen salmenta: berriak, bigarren eskukoak
eta km 0

Marka guztietako ibilgailuen konponketak



EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA



Txikitako zaletasuna helduaroko afizio nagusi bihurtu zuen Borja Huertok (Zarautz, 1990) duela bospasei urte. Gaur egun, gasolinarekin ibiltzen diren auto telegidatuen lasterketetan parte hartzen du. Mendaroko zirkuituan bildu da UKT berarekin mundu ezezagun honetaz gehiago jakiteko asmoz

“BENETAKO AUTO BAT ONDO JARTZEA DA NIRE AMETSA, BAINA HORI EGIN EZIN DUDANEZ, TELEGIDATUEKIN EGITEN DUT”

BORJA HUERTO

Nola ezagutu zenuen auto telegidatuen lasterketen mundua?

Umetan, ia denei bezala, auto telegidatu bat oparitu zidaten, eta hor hasi zen zaletasuna. Beti izan ditut gustuko autoak, txikiak zein handiak. Gero, lanean hasi nintzen eta lehen soldatarekin gasolinazko auto telegidatua erostea pentsatu nuen. Hura probatu nuen eta autoa bera ondo jartzea oso dibertigarria zela iruditu zitzaidan. Izan ere, autoa kaxatik ateratakoan lurrean jarri eta ez da behar bezala mugitzen, asko mugitzen da, eta beraz, gidatzea ez da erraza. Foroak irakurtzen eta ezagutzen nituen pertsonekin hitz egiten hasi nintzen: autoa ondo jartzeko aste osoan lan egin ondoren, asteburuan proban jarri, eta ondo zerbilela ikusita, gustuko nuela ohartu nintzen.

Nire ametsa egiazko auto batean lan bera egitea litzateke, baina hori ezin dudanez egin, auto telegidatueta egiten dut. Gaur egun informazioa lortzea erraza da, interneti esker dena eskura dugu. Gainera, pertsona berriak ezagutzen dituzu foroetan, eta denek gomentatzen dizute etxetik gertuen duzun klubera joatea. Bertan ikasten duzu guztia. Egun bat edo bi nahikoa da ikasteko. Gainera, ondo pasatzen baduzu, zer gehiago nahi duzu?

Zer du berezia gasolinarekin ibiltzen den auto telegidatuak?

Zarata. Eta gasolina usaina. Ez da autoek erabiltzen duten gasolina bera, nitrometanoa erabiltzen baitute auto telegidatuak, eta usain berezia dute. Minutuko bira kopurua ere berezia da, auto nor-

malak 7.000 bira minutukora iristen direlako, eta hauek, berriz, 45.000ra iritsi daitezke. Horrek sortzen duen zaratak barruan eragiten didan zirrara bezalakorik ez dago. Esaten dute auto txiki hauek benetako eskalan jarriko balira 1.000 zaldi baino gehiago izango lituzketela. Proportzioan, ikaragarria da. Imajinatu! Ni, pertsonalki, sentsazio horrek asko betetzen nau.

Zergatik erabaki zenuen horrelako lasterketetan parte hartzea?

Mundu horretan sartzen hasten zara, eta hobetzen hasten zarela ikusten duzu; azkarrago joaten, bihurtuneak hobeto hartzen, kotxea ezagutzen eta ondo jartzen... “Beharbada ondo egiten dut”, pentsatzen duzu. Ekonomikoki ere arrazoizkoa da prezioa, eta saiatzearabaki

nuen. Hasierako asmoa gustuko zerbait egitea zen arren, poliki-poliki munduan sartzen zara eta pikatzen joaten zara, lasterketetara iritsi arte. Beste kiroletan gertatzen den bezala. Gainera, klub baten barruan zaudenean, beti dituzu lasterketak. Hobetu nahi duzu, eta azkenean ondo pasatzeko beste modu bat da. Lasai hartu, zure autoa ondo jarri, beste zirkuituetara joan eta norgehiagokak zer diren ikasi... Zeure klubeko ki-deekin egonaz bakarrik ere asko ikasten duzu.

Nola prestatzen zara?

Egia esan, asko eta ondo prestatu behar duzu dena. Lasterketa Euskal Herrian bada etxe ondoan zaude, eta berdin dizu emaitzak. Baina Espainiako hainbat txokotara joan behar bada, autoak oso ondo egon behar du. Ez da zentzuzkoa Cadizeraino joatea Espainiako Txapelketa jokatzera eta autoa bere egoera onenean ez egotea. Bidaia, hotela, jatorduak... Gauza asko ordaindu behar dituzu. Hamabi ordu behar izaten ditut Espainiako txapelketa baterako autoa ondo jartzeko. Izan ere, autoa desmuntatu egin behar da, eta gero berriro dena muntatu. Dena olizotatu behar da, silikona eman, enbrageak ondo jarri. Azkenean, bere lana du. Egoera txarrean eramaten baduzu autoa ez duzu aukerarik irabazteko, eta gaine-



"Leku guztietan pertsona berak ibiltzen gara normalean, eta azkenean laguntasuna sortzen da. Familia bat sortzen duzu"



Santixo auzoa, 22 · ZUMAIA · 943-14 31 43
zumaiapneumatikoak@gmail.com · www.zumaiapneumatikoak.com

aire egokitua · direkzio lerrokatzea · bateria ·
pneumatikoak · olio aldatzea ·
indargetzaileak aldatzea · distribuzio uhalak ·
disco-balazta · haizetako-garbigailuak aldatzea ·
olioaren iragazkia aldatzea · kanpoko eta barruko
garbiketak · balazta-pastillak · ordezkotako autoak ·
zulatzeen kontrako pneumatikoak · ...

Bizkor autoak

Loiola auzoa, 20 · AZPEITIA · 943-81 08 08 · www.nt2.es

- Autoaren azterketak
- Olioak eta iragazkiak
- Balaztak
- Pneumatikoak
- Bateriak

- Motelgailuak
- Transmisio uhalak
- Aire egokitua
- Elektrizitatea
- ...



ra, ez duzu ondo pasako. Horregatik, funtsezkoa da autoa ondo-ondo prestatuta edukitzea.

Zer da gehien gustatzen zaizuna auto telegidatuen mundutik? Zer ematen dizu mundu horrek?

Zirkuituan izaten den giroa. Berdin du zein zirkuitu izan, Euskal Herrikoa, Madrilgoa edo beste bat, guztietan egoten da giro ona. Denok desiratzen egoten gara jende berria ezagutzeko, eta gainera beti gauzak errazten dizkizute. Gasolina falta baduzu, edo gurpilak... Dena uzteko prest agertzen dira. Eta, azkenean, laguntasun eta giro hori da berezia eta eskertzekoa. Leku guztietan pertsona berak ibiltzen gara normalean, eta azkenean laguntasuna sortzen da. Familia bat sortzen duzu.

Eta zer alde txar ditu?

Denbora eta dirua esango nituzke, batak bat. Gastatzen duzun diru kantitatea asko izan daiteke asteburua non igarotzen duzunaren arabera. Aurrez esan bezala, hotelak eta jatorduek ordaindu behar dituzu, eta horri, autoaren materialak gehitu. Bi alde horiek dira alde txarrenak, baina beti esaten den moduan, gustuko tokian aldaparik ez!

Nola joan zaizu orain arte parte hartu duzun txapelketetan?

Egia esan, oso ondo. Gidari asko eta maila altukoak ibiltzen dira lasterketan. Parte hartzaile gehienek 35 urte baino gehiago dituzte, eta ni bezalako gazteok, ondo prestatuta joanez gero, irabazten ditugu lehiaketak. Iaz hiru garren saria eskuratu nuen Euskadiko Txapelketan, Espainiako hamar onenen artean ere egon izan naiz, edota Espainiako Kopa deritzon txapelketan laugarren postua lortu nuen 2017an. Horiek izan dira nire lorpen onenak. Nireak baino, gehiago dira gure lorpenak, nire bikotekidearenak eta nireak. Batera joaten gara lasterketa guztietara, eta bere laguntzarik gabe, ezinezkoa egingo zitzaidakeen.

Zertan datza lasterketa bat?

1 Formulako lehiaketaren bat inoiz ikusi baduzu, antzekoa da. Entrenamenduekin hasten gara, goizeko lehen orduan, eta klasifikazioak egoten dira ondoren. Hiru ekitaldi izaten ditugu, bakoitza bost minutukoa, eta horietan azkarrenak sailkatzen dira azken lasterketarako. Klasifikazio ona egitea garrantzitsua da, gero azken lasterketan zein lekutan irtengo zaren zehazten duelako, eta hor, zenbat eta lehenago atera, hobe. Auto lasterketa normaletan egoten diren irteera bera dugu, eta zenbat eta

lehenago irten, arazo asko ekidin ditzakezu.

Jendea animatuko zenuke mundu hone-tan parte hartzera? Zergatik?

Noski. Batik bat, rally edota auto handien lasterketak gustuko dituztenek, baina ekonomikoki ezin dutenek, set up edo autoa ondo jartzeko mundua ezagutzeko eta ikasteko aukera dutelako. Horregatik, etorri, ezagutu eta parte hartu. Lagunak ekarri izan ditut zirkuitura eta nire autoa utzi diet probatzeko, eta ondoren bat erosteko gogoz joaten dira etxera. Dibertigarria da.

Zenbat auto dituzu? Eta nola lortzen dituzu?

Momentuan hiru ditut jolasteko, eta lehiaketetarako, berriz, lau edo bost ditut. Batzuk badira, baina behar dituzu. Ezin zara Madrileran joan auto batekin bakarrik, aleroia, gurpila edo beste piezaren bat galdu edo aldatu beharra izango duzulako. Hauek erosteko, Espainia mailan denda ugari daude. Inongo arazorik ez dago zentzu horretan. Bakoitzak, gero, gidatzeko bere ohiturak ditu, eta autoak horren arabera moldatzen dira ondoren. Zuk nahi bezala jar dezakezu autoa, bai barrutik, bai kanpotik. Baina beti esaten dudana bezala, klubera etorri eta bertan emango zaizu behar duzun informazio eta aholku guztia. ■



alekar



Erregai zerbitzugunea, 24 orduz

Denda

Autoak eta furgoneta handiak garbitzeko makina

Autobusen alokairua

Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairua

Mekanika orokorra

Arana
K A R R O Z E R I A

Harzubia, 51 · AZPEITIA · 943-81 21 88 · FAX: 943-15 11 30

TXAPA ETA PINTURA LANAK

ERA GUZTIETAKO IBILGAILUEN KONPONKETAK: autoak, motoak, furgonetak...

ORDEZKO IBILGAILUA

ASEGURU ETXE GUZTIEKIN EGITEN DUGU LAN



Ibilgailuen garbiketa eta detailing-a



Ibilgailuen eskuzko garbiketa
Tapizerien garbiketa
Karrozerien leunketa
Argien leunketa
Larruaren garbiketa eta tratamendua



📍 Narrondo auzoa · Zumaia

📞 622 51 90 00



“EZ DAKIT ZER, BAINA BADUT ZERBAIT JENDEAREN GUSTUKOA DENA”

MIKEL BEREZIARTUA ‘REKADISTA-TXATARRISTA’



Nolatan hasten da garraiolari bat Youtubera bideoak igotzen?

Txikitandik gustuko izan dut jostailuak desegin eta berriro egitea, eta gauzek edo trasteek nola funtzionatzen zuten azaltzen zuen liburua oparitu zidan amak. Goitik behera irakurri eta ikasi nuen. Garai hartan, ez zen existitzen Youtube, eta Facebook sare sozialera igotzen nituen bideoak eta argazkiak. Arrakasta izaten zuten, Alemaniako pertsonak ere partekatzen baitzituzten nik igotakoak. Ondoren, 2010 edo 2011 urtean hasi nintzen igotzen bideoak Youtubera. Bideo haiek ez zuten kalitaterik: mugikorrarekin grabatutakoak ziren, 6-8 segundokoak. Era berean, semeak urte eta erdi zuela, berekin hasten nintzen jolasean eta bitartean bideoan grabatzen nituen bere jostailuen desegitea. Horiek ere arrakasta izaten hasi ziren, bideo batzuek milioika eta milioika bistartze dituzte. Hori ikusita, tutorial txikiak igotzen hasi nintzen.

Gogoan duzu noiz pentsatu zenuen “bideoak grabatzen eta jendeari helarazten hasiko naiz”?

Aurrena, moto batekin egin nuen. Kulata kendu nion eta mar-txan jarri nuen, zilindro bat gabe. Motoa piztuta ikusten zen, abian, eta kulata gabe. Orduan pentsatu nuen: “hau ikara-

garria da eta igo egin behar dut bideoa”. Hainbat pertsonari laguntzen hasi nintzen poliki-poliki, eta jarraitzaile gazte asko hasi ziren ni jarraitzen; asko ikasten dutela diote. Ahal dudala, behintzat, gomendio onak ematen saiatzen naiz gazteei.

Beraz, esan dezakegu helburuak zirela ondo pasatzea eta la-guntzea.

Bai, batik bat, pertsonen laguntzea. Ez zen existitzen nik igotzen nituen bezalako bideorik. Zuk nahi zenuen jakin moto bati nola egin zer bait, eta ez zegoen hori argitzen zuen bideorik gaztelaniaz, agian ingelesez bat edo beste. Adibidez, orain bi urte erosi nuen Suzuki GT750 motoa, izugarrikoa, kaxa batean sartuta. Hau da, dena desarmatuta. Moto harekin egin nuen lan guztia 20 bideotan grabatu eta igo nuen sarera.

Espero al zenuen lortutako arrakasta?

Egia esan, ez, ez nuen espero. Jarraitzaileak goraka hasi zirenean, pentsatu nuen ikaragarrikoa izango zela egunen batean 100.000 jarraitzailetara iristea. Baina egun batean, bat-batean, kopuru horretara iritsi nintzen.... eta, gaur egun, 345.000 inguru ditut Rekadista kanalean. Beste kanalean ere, Txatarristan, 116.000 jarraitzaile ditut, eta Instragram sare sozialean, 45.000. Ez dakit zer den, baina badut zer bait jendearen gustukoa dena. Bideoak txarrak dira; youtuber askok bideoak editatzen dituzte, dron batekin grabatzen dute... Nik horrelakorik ez dut egiten, ez dut denborarik galtzen horretan; grabatzen dudana bezala igotzen dut.

Bat nahikoa ez, eta bi kanal dituzu, bat Rekadista izenekoa eta bestea Txatarrista. Zeintzuk dira bi kanalen arteko desberdintasunak?

Motoen inguruko bideoak igotzen ditut Rekadista kanalean:

bidaia, tutorialak, konponketak, eta niretzako garrantzitsuak diren gaiak. Hainbeste bideo grabatzen ditut, ordea, eta horrenbeste gelditu dira publikatu gabe, beste kanal bat zabaltzea erabaki bainuen. Txatarrista kanala edozer gauza igotzeko erabiltzen dut; kalean aurkitzen dudana auto zaharra, errepidean zer bait gertatu zaidala, motoa... Grabatu, eta zuzenean igotzen dut, ediziorik gabe.

Desberdintasunak desberdintasun, biek 100.000 harpidedunen langa igaro duzu eta Youtubek Zilarrezko Botoiak eman dizkizu. Lehenengoan 347.000 harpidedun dituzu eta bigarren-goan, 116.000. Ez da marka apala!

Ez, youtuber gutxi dira bi botoi dituztenak... kar, kar, kar.

Nola hartzen da arrakasta hori?

Kontua da ezaguna egiten zarela, eta zure familia ere bai, nahiz eta ez ditudan agertzen askotan. Kalean zoaz eta autografoa edo selfie bat eskatzen dizute, eta aiba! pentsatzen duzu... Handia egiten zaizu hasieran, baina argi dut ez naizela aldatuko, eta horregatik ez naizela inor baino gehiago ere. Duela 30 urte bezalakoa izaten jarraitzen dut.

Non aurkitzen dituzu auto eta moto horientzat piezak?

Interneteko salerosketarako bilatzaile garrantzitsu bat erabiltzen dut, eta, ahal dudana guztietan, pieza originalak aurkitzen saiatzen naiz. Izan ere, errusiarrek eta txinatarrek faltsutze asko egiten dituzte, eta nabari egiten da kalitatean.

Zer diote etxekeok zure arrakasta ikusita?

Beraiek ikusten dute nola doan dena, eta nik gustuko dudala. Gainera, eurek ere afizio bera dute, eta bidaia egitera edota erakusketak ikustera laguntzen didate. Egia da denbora libre gutxi dudala, baina ondo eramaten dugu.

Eta nondik ateratzen duzu denbora horrenbeste bideo grabatu

DTM

Elektromekanika · BMW markan adituak
3D alineazioa · Mantenu orokorra

Urola kalea, 6 - AZPEITIA - 943-15 12 60
604 24 55 83 - dtm@dtmloigar.com



Juantxo
Autoelektrizitatea

Landeta Hiribidea - 20730 Azpeitia
Telefona: 943-81 16 66
electricidad@juantxo.net

Bi-Aitz
karrozeria

IÑAKI ZELAIA

Landeta Hiribidea, 19 · AZPEITIA
Tel./Fax: 943-81 48 15 · 635 73 93 43 · biatitzkarrozeria@gmail.com

eta igotzeko?

Gauza da youtuber askok ez dakitela zertaz hitz egin, baina nik egunean lau edo bost grabatzeko arazorik ez dut. Bideoak ez ditut aurrez pentsatzen; garajera joaten naiz edozer egitera eta momentuan pentsatzen dut: hau egingo dut eta grabatu egingo dut. Auto bat erosten duzunean, iragazkiak behar dituzula, olioia aldatu behar diozula... gai asko dago. Nahi gabe etortzen zaizkit gaiak, niri behintzat.

Bideoak igotzen badituzu, ondo pasatzen duzulako eta gustuko duzulako da. Baina, lan karga ere izango da. Nola kudeatzen duzu? Laguntzarik baduzu?

Ez dut laguntzarik, dena neuk egiten dut. Grabatzen hasten naiz, eta etenaldia egiteko aukera ematen dizunez mugikorak, ia-ia bideoa eginga duzu. Etxera iristean, wifi sarera konektatzen zait mugikorra, eta grabatutako guztia Google Fotosera igotzen zait bakarrik, eta jarraian, ordenagailuan jartzen naizenean, deskargatu egiten dut eta editoretik pasatzen dut. Beste youtuber batzuk ikusten ditut editatzen hiru



egun pasatzen dituztela, nik ez, nik berehala egiten dut. **Inoiz pentsatu al duzu laguntza eskatu eta zertxobait profesionalizatzea?**

Ez, nire jarraitzaileek segitzen banaute, nire naturaltasunagatik da. Nik badakit nire bideoak kaxkarrak direla, beste batzuekin konparatuz gero, baina maila igoz gero, maila mantendu behar duzu. Gainera, beste baten zain egon behar zara hark editatzeko, eta denbora galtzen duzu. Ez du merezi. Beraz, nik horrela jarraituko dut; mugikorrarekin grabatu eta ia editatu gabe igotzen bideoak.

Azpeiti

AUTOESKOLA

Loiolako Ignazio Etorbidea, 29
Tel.943-08 31 43 • 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
info@azpeitiautoeskola.com
www.azpeitiautoeskola.com

ALDALUR

AUTOAK

Kalitatezko zerbitzua zure autoarentzat soluzio mekanikoak preziorik onenean

- Olioia eta iragazkiak
- Esekidura eta balaztak
- IAT aurrekoa
- Ordenagailuzko diagnostia
- Ihes-hodiak

- Katalizatzailea
- Bateriak eta alternadoreak
- Pneumatikoa eta lerrokadura
- Uhalak
- ...

Artzubia Hiribidea, 39 · AZPEITIA · 943-15 16 95

Autos Zumaia

BOSCH

SERVICE



Urola plaza 3-5 · ZUMAIA
943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



MEKANIKA ETA MANTENTZE LAN OROKORRAK

- Elektrizitatea eta sistema elektronikoak
- Diagnosi multimarka
- Aire girotua
- Pneumatikoak eta direkzio lerrokatzea
- Auto hibrido eta elektrikoen konponketak
- IAT zerbitzua: IAT aurrekoa, autoa eraman eta jaso
- Loturak
- Beira aldaketa

Lana utzi eta honetan aritu. Inoiz pentsatu duzu?

Bai, pentsatu izan dut. Izan ditut nire bideoetan agertzeko eskaerak, baina egundoko lana du horrek: fakturak, erabakiak... Nik ez dut idazkaririk, beraz, norbaitek zerbait nahi badu korreo elektroniko edo dei bidez egin behar du, eta nik gustuko dudana zerbait izan behar du. Ez dut edozer gauza sartuko nire bideoetan: zerbait ona eta ondo iruditzen zaidana izan behar du. Ez nago prest diruagatik edozer sartzeko. Enpresa handiak etorri zaizkit, baina beraien produktua ez zait gustatu, eta ezetz esan diet. Madrilen biziko banintz, orduan bai, furgoneta utziko nuke. Aukera gehiago dituzu han, baina hemen desberdina da. Bestelako gauzak ere egiten ditut, gainera.

Zer pentsatu zenuen autografoa lehenbizikoz eskatu zizutenean?

Duela hiru urte Huescara (Espainia) joan ginen eta, bat-batean, hiru pertsona nituen sinadurak eta argazkiak eskatzeko. Harrituta gelditu nintzen, baina handik aurrera, ohikoa bihurtu da. Gainera, furgoneta nahiko handia dut eta ezin da ezkutu, eta errepidean noala klaxona jotzen didate.

Moda, bideo-jokoak... youtuber asko daude. Aldiz, motor mundukoak ez zarete asko. Zergatik izan daiteke?

Gazteak gero eta saltseroagoak dira, eta ari dira hasten, baina egia da ezin dela konparatu bideo-jokoekin, adibidez. Arlo horretan youtuber asko daude. Bideo-jokez hitz egi-teak, ordea, kafeak edo filmeek baino diru gehiago sortzen dutela uste dut. Ikaragarria da. Ez du ematen, baina pertso-

na askok dute kontsolaren bat etxean, eta zer geratzen da? Jolasten hasten zara eta mailak ezin igarota geratzen zara, ez aurrera ez atzera. Kasu horietan Youtube kanalean begira hasten zara, besteek nola egiten duten ikusteko. Beste ha-inbat badira, aitzitik, bideo-jokoa nola igarotzen den ikustea gustuko dutenak, nahiz eta ez jolastu. Pelikula bat ikustea gisa hartzen dute. Kanal asko daude, eta gainera, oso ondo ordaintzen dira. Mekanika munduan, aldiz, autoen bideoak askoz gehiago jarraitzen dira motoenekin alderatuta.

Bideoez gain, sare sozialetan ere oso aktiboa zara. Bideoen osagarri bezala edo bestelako edukiak zabaltzeko erabiltzen dituzu? Zein da xedea?

Lehen Facebook sarean ibiltzen nintzen, baina dagoeneko ez. Orain, Youtubeko bideoak zuzenean partekatzen ditut Facebooken eta Twitterren. Beti gustatu izan zait argazkiak ateztea, eta ikusi nuen Instagram horretarako egokiagoa zela, eta 10.000 jarraitzaile izandakoan aukera ematen dizu loturak partekatzeko. Hori egitean 30.000 pertsonetara iristen da bideoa, eta oso ondo etortzen da. Momentuan geratutakoak edo ikusitakoak partekatzen ditut Instagrameko zuzenekoetan, eta bakarrik egiten dudanez lana, lagunduta sentitzen naiz.

Txoko asko ezagutzeko aukera izan duzu auto eta motoekin bidaiatzen. Zein txoko eta errepide gomendatuko zenituzke?

Hemen bertan, N-634 errepidea, Usurbildik hasi eta Oria ibaiari jarraituz, Amazonas dirudi! Izugarrizko ingurunean bizi gara, zuhaitz eta mendi artean. Getariara iristen ari zarela, munduko txokorik ederrenetakoa da. Ez dago kanpora joan beharrik. Itziarko bistak edo ikuspegia, Mutrikuko eremua... hori guztia ikaragarria da. Horrez gain, toki garaiak ditut gustuko, eta toki horietan aurki daitezkeen eserlekuak.

Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzun asmoak eta erronkak?

Epe ertainera nahiko nukeena zera da, garraiolari furgoneta utzi eta arreta jarri nire zaletasuna den zeregin honetan. Familiarekin eta denbora gehiago pasa. Hala ere, inoiz ezin dugu jakin zer gertatuko den, eta baliteke babesleren bat iristea, eta kasu horretan, lokal handi bat hartuko nuke eta bideo onak grabatzen hasiko nintzateke. Azkenean, nahikoa da norbaitek arreta zugar jartzea, eta proposamen on bat egitea. Oraingoan, ordea, gustuko dut nire kasa aritzea, eta beldurrik ez dut edozer lan egiteko, baita taberna batean aritu behar badut ere. ■



TXG

TXOMIN GORRI

Marka eta mota guztietako autoentzako kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugu

**Gure ezaugarri nagusiak:**

- Merkatuarekin batera etengabeko formakuntza eta berrikuntzak
- Bezeroen arretan gertuko tratua
- Zerbitzuan azkartasuna eta kalitatea
- Prezioen gardentasuna
- Mota guztietako autoak konpontzeko prestutasuna (Klasikoak, kamionetak, autokarabanak, 4x4...)
- Ordu-tegi zabala eta autoa bertaratzeko erraztasunak jartzen ditugu

Astelehenetik- ostiralera: 08:00-13:00 eta 14:30-19:00

Juin Txiki Industrialdea, 16A · AZKOITIA
655 52 12 57 · txgautoak@gmail.com

Bizikleta autoan eramaten duten gero eta pertsona gehiago daude. Eramatekoa hautatu aurretik, ordea, kontuan hartu behar dira irizpide batzuk. Jarraian dituzu mota bakoitzaren ezaugarriak

BIZIKLETA-ERAMATEKOA HAUTATZEKO GAKOAK



Teilatukoa

Egokiena da bizikletak noizbehinka garraiatzen dituztenentzat, betiere distantzia laburrak egiteko. Autoan barrak edukitzea beharrezkoa da mota honetako bizikleta-eramatekoetan. Erraztasuna du abantaila; haatik, aerodinamikan galduko du autoak.

Maletategikoa

Mota honetako bizikleta-eramatekoa gomendagarria da bizikletak noizean behin eta distantzia ertain-luzeak egiten dituztenentzat. Abantailen artean aurkitzen ditugu bizikletak kargatzeko ematen duen erabilgarritasuna eta leku gutxi hartzen duela. Aitzitik, ez da bateragarria auto modelo guztiekin, eta beharrezkoa da gehitzea V20 plaka, matrikula eta argiak.

Krokadura bidezkoa

Krokadurazkoa edo loturazkoa oso maiz erabili eta bidaia luzeak egin behar dituenarentzat da egokia. Abantailen artean daude, maletategikoan bezala, erosotasuna eta espazio gutxi behar izatea; beharrezkoak dira, berriz, V20 plaka, matrikula eta argiak. ■

LAU

NEUMATIKOAK

PNEUMATIKOAK-MEKANIKA AZKARRA



direkzio lerrokatzea · bateria · pneumatikoen aldatzea · indargetzaileak aldatzea ·
distribuzio uhala · disko-balazta · pneumatikoak orekatzea · balazta-pastillak ·
zulatzeen kontrako pneumatikoak · enbrage aldaketa

...

Landeta Hiribidea, 26-28 · AZPEITIA
943-05 30 56

MOTOR GIDA



AIA TAILERRAK

Multimarkak
Klimatizazioa
Elektrizitatea
Balaztak
Mantenimendua
Mekanika orokorra
IAT zerbitzuak: IAT aurrekoa, autoa
eraman eta jaso...
...



Bizkaia kalea, 69 · ZARAUTZ
943-83 46 18 · 639 51 80 24
electricidad@gmail.com



AIERTZA AUTOAK

Mekanika eta mantenimendua
Elektrizitatea - Elektronika
Txapa eta pintura
IAT aurrekoa
Ordezko ibilgailua
Kotxeen salmenta: berriak, bigarren
eskukoak eta km 0
Citroën zerbitzu ofiziala
...



AZPEITIA
943-81 19 15
aiertza@aiertzaautoak.com



AIZPURU AUTOAK

Sistema elektronikoa
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Aseguruen artekaritza
Mekanika
Esku lanaren tarifa finkoa kontratatzeke aukera
Azterketa
Jasotzeko eta entregatzeko zerbitzua
...



Arretxe, 17 · AZPEITIA
943-81 23 59 · FAX: 943-81 22 81
aizpuru@aizpuru.net



ALDALUR AUTOAK

Olio eta iragazkiak
Esekidura eta balaztak
IAT aurrekoa
Ordenagailuzko diagnostia
Ihes-hodiak
Katalizatzailea
Bateriak eta alternadoreak
Pneumatikoa eta lerrokadura
...



Artubia Hiribidea, 39 · AZPEITIA
943-15 16 95



ALEKAR

Erregai zerbitzugunea, 24 orduz
Denda
Autoak eta furgoneta handiak
garbitzeko makina
Autobusen alokairua
Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairua
Mekanika orokorra
...



Sansinenea Erreka Industrialdea, A-1 14
ZESTOA
943-08 09 99



ARANA KARROZERIA

Txapa eta pintura lanak
Era guztietako ibilgailuen konponketak:
autoak, motoak, furgonetak...
Ordezko ibilgailua
Aseguru etxe guztiekin egiten dugu lan
...



Harzubia, 51 · AZPEITIA
943-81 21 88
FAX: 943-15 11 30



AVIA GASOLINDEGIAK - AZKOITIA

Erregaiak
24 orduz irekita
Deskontuak Avia txartelarekin
Deskontuak Herrixen txartelarekin




Ibai-Ondo, 1
AZKOITIA



AUTOS ZUMAIA

Elektrizitatea eta sistema elektronikoak
Diagnosi multimarka
Aire girotua
Pneumatikoak eta direkzio lerrokatzea
Auto hibrido eta elektrikoen konponketak
IAT zerbitzua: IAT aurrekoa, autoa eraman eta jaso
Loturak
Beira aldaketa
...



Urola plaza 3-5 · ZUMAIA
943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



AZPEITI AUTOESKOLA

Kotxeko karneta ateratzeko dedikazio
esklusiboa
Teorikoa prestatzeko euskaraz
espezializatuta
...



Loiolako Ignazio Etorbidea, 29 · AZPEITIA
943-08 31 43
info@azpeitiautoeskola.com
www.azpeitiautoeskola.com



AVIA GASOLINDEGIA - AZPEITIA

Erregaiak
Butanoa
Zerbitzu pertsonalizatua
Deskontuak Avia txartelarekin
Deskontuak Azpeitia txartelarekin



Ezkuzta pasealekua, z/g
AZPEITIA



BI-AITZ KARROZERIA

Txapa eta pintura lanak
Era guztietako ibilgailuen konponketak:
autoak, furgonetak, motoak, kamioiak...



Landeta Hiribidea, 19 · AZPEITIA
943-81 48 15 · 635 73 93 43
biaitzkarrozeria@gmail.com



BIZKOR AUTOAK

Autoaren azterketak
Olioak eta iragazkiak
Balaztak
Pneumatikoak
Bateriak
Motelgailuak
Transmisio uhalak
Aire egokitua
Elektrizitatea

Bizkor autoak

Loiola auzoa, 20 · AZPEITIA
943-81 08 08
www.nt2.es



DISTIRA GARBIKETAK

Ibilgailuen eskuzko garbiketa
Tapizerien garbiketa
Karrozerien leunketa
Argien leunketa
Larruaren garbiketa eta tratamendua
...



Narrondo auzoa · ZUMAIA
622 51 90 00



DTM

Elektromekanika
BMW markan adituak
3D alineazioa
Mantenu orokorra
...



Urola kalea, 6 · AZPEITIA
943-15 12 60 · 604 24 55 83
dtm@dtmloigar.com



FLYING RENT

Autokarabana alokairua
Kontaktu zuzena 24ordu/7egun
Alokairuko seguru berezia
Estalitako aparkalekua ibilgailuentzat
....



Baiolegitxo, 4A poligonoa · AZPEITIA
647 31 84 86 · 616 34 17 70
info@autocaravanasflying.com
www.autocaravanasflying.com



GORDEGUNE

Garajeak: alokagai eta salgai (ate itxiarekin ere bai)
Autokarabanen errenta
...



Landeta Hiribidea 38, 1.solairua, 5.lokala
AZPEITIA
686 53 91 99
gordeguneazpeitia@gmail.com



JUAN TXO AUTOELEKTRIZITATEA

Argiak
Bateriak
Arrankelak
Alternadoreak
Lehiadura elektrikoak
...



Landeta Hiribidea · AZPEITIA
943-81 16 66
electricidadjuantxo@telefonica.net



LAU NEUMATIKOAK

Direkzio lerrokatzea
Bateria
Pneumatikoen aldatzea
Indargetzaileak aldatzea
Distribuzio uhala
Disko-balazta
Pneumatikoak orekatzea
Balazta-pastillak
...



Landeta Hiribidea, 26-28 · AZPEITIA
943-05 30 56



UROLA PSIKOTEKNIKOA

Gidabaimenak
Armen baimenak
Nautika baimenak
Txakur arriskutsuen baimenak
Kirol ziurtagiriak



Hartzubia, 31 behe · AZPEITIA
943-81 35 06
aurolapsikoteknikoa@outlook.com
www.urolaautoeskola.com



TXOMIN GORRI AUTOAK

Lerrokatzea
Esekidurak
Olio aldaketa
Injekzio elektronikoa
Ihes kanalizazioak
IAT zerbitzua
Mekanika
Elektrizitatea
...



Juin Txiki Industrialdea, 16A · AZKOITIA
655 52 12 57
txgautoak@gmail.com



URRAKI ELEKTROMEKANIKA

Mekanika
Elektrizitatea
Zentralitak
Gurpilak
Direkzioa
Balaztak
Aire egokitua
Loturak
...



Atxubiaga, 3 · AZPEITIA
943-14 23 54
urraki@urraki.eus
www.urraki.eus



UROLA AUTOESKOLA

Baimenak: AM, A1, A2, B, B+E, C, D
eta C+E
CAP kurtsoak
ADR kurtsoak
Gidabaimena euskaraz ateratzeko
aukera



Bustinzuriko Errebala, 3 atzea · AZPEITIA
943-81 26 66
urolaonline@hotmail.com
www.urolaautoeskola.com



ZUMAIA PNEUMATIKOAK

Aire girotua
Direkzioa lerrokatzea
Bateria
Pneumatikoak aldatu eta orekatzea
Olio aldatzea
Indargetzaileak aldatzea
Distribuzio uhala
Disko-balazta
...



Santixo auzoa, 22 · ZUMAIA
943-14 31 43
zumaiapneumatikoak@gmail.com
www.zumaiapneumatikoak.com

EUSKAL HERRIA EZAGUTZEN: IPARRALDEA AUTOKARABANAN

Deskonektatzeko nahikoak dira bi edo hiru eguneko joan-etorriak. Iparraldeko herri txikietatik bira prestatu dugu autokarabaz egin dezazun –Okzitania ere geldialdixoa eginez– ibilgailu horrek behar dituzun lasaitasuna eta erosotasuna eskaintzen dizkizulako.

Sara. Iparraldeko herri txiki bezain ederra. Larrungo trena eta Sarako kobak ezagutzeko aukera izango duzu.

Donibane Garazi. Paisaia zoragarria, ondare arkitektoniko bikaina, bizi asko duen kale nagusia, historia liluragarria eta gastronomia ezin hobe eskaintzen ditu Donibane Garazik.

Maule-Lextarre. Baso, belardi eta muino artean kokatzen da Zuberoako hiriburua. Uhaitzandi ibaiak zeharkatzen du herria, eta etxeetako balkoiak ur gainean zintzilik ikusiko dituzu. Gainera, bi gaztelu ditu.

Saliese (Biarno). Okzitaniako herria da, berezia, xarma handikoa. Galtzada-harrizko kaleak eta antzinako etxeak mantentzen ditu, betiko estiloa galdu gabe.

Ezpeleta. Iparraldeko herririk politenetakoa. Ezaguna da piper gorriengatik: Ezpeletako piperra. Kaleetan zehar aurkituko dituzu piperrak etxeetako aurrealdeetan zintzilik. ■



GORDE GUNE s.l. PARKING

Behar duzun guztiarekin ekipatutako
autokarabana, camper eta
karabanentzako parking zerbitzua



Landeta Hiribidea 38, 1.solairua, 5.lokala · AZPEITIA
gordeguneazpeitia@gmail.com · 686 53 91 99

AUTOKARABANA ALOKAIRUA

Leku berriak
ezagutzeko askatasuna



AUKERATU ZURE AUTOKARABANA

XMK ILUSION 760



Bidaiazteko – Lo egiteko 6 plaza
Perfilatua-2 litera-Ohe elektriko bat egongelan

XMK ILUSION 740



Bidaiazteko – Lo egiteko 5 plaza
Perfilatua-integrala-Ohe batean bihurtzen diren 2 ohe

BENIMAR 495UP



Bidaiazteko – Lo egiteko 5 plaza
Tessoro-Perfilatua-Logela egngelarekin banatua

BENIMAR 340UP



Bidaiazteko – Lo egiteko 5 plaza
Sport-Capuchina-Kabina gainean ohe zabala

Bisitatu gure web orria

www.autocaravanasflying.com

AUTOKARABANAK · ERRESERBAK · ESKAINTZAK · BIDAIAK